



Bake
prozesua
indartzeko
Foro
Soziala

Foro
Social
para impulsar
el proceso
de Paz

Forum
Social
pour impulser
le processus
de paix

Social Forum
to promote the Peace process

2020-2024 legealdia: korapiloak askatzeko aukera

Tasio Arrizabalaga hitzartzea

Hasteko, aurreko hauteskundeetan Eusko Legebiltzarrean ordezkariak lortu zuten sei alderdien programen artean joan den uztailean egin genuen azterlan konparatiboa aurkeztuko dizuegu. Konparaketa lan horretan Gobernu Akordioaren edukia ere gehitu ditugu. Gure praxian ohikoa denez, Legebiltzarra eratu zenetik bi aste itxaron ditugu erreakzioak aztertzeko.

Foro Sozial Iraunkorraren helburua, 2016an sortu zenetik, bizikidetzaren demokratikoa eraikitzen laguntzea izan da, indarkerien zikloaren ondorioak konpontzea erraztuz.

Egindako lanaren ondorioetako bat argia izan da: bizikidetzaren demokratikoa eraikitzea euskal gizarte osoaren erantzukizuna da: gizarte eragileena, herritarrena eta erakunde instituzional eta politikoa.

Hortaz, funtsezkoa da ildo horretan Eusko Legebiltzarrak eta Nafarroako Parlamentuak duten erantzukizuna, eta baita horiek osatzen dituzten alderdiek ere, lurralde bakoitzeko gobernuekin batera.

Euskal Autonomia Erkidegoan 2020-2024 legealdia hasi berria da. Egin dugun konparaziozko azterlan horri esker, esan dezakegu legealdia honek behar adina baldintza betetzen dituela adostasun zabalez aurre egiteko korapilatuta dirauten erronka nagusienak askatzen hasteari.

Eusko Legebiltzarrean ordezkariak dauden indar politiko gehien-gehienak, garaileen eta garaituen posizioetan jarraitzen duten gutxi batzuk salbu, bat datoz armagabetze zibilaren eta disoluzioaren ondoren gure herrian zabalduko bake eszenatokia sendotzeko eta euskal gizartearen etorkizuneko bizikidetzari ekarpena egiteko premian, eta konpromiso sendoa

erakutsi dute elkarrizketaren balioekiko, giza eskubideen errespetu osoarekiko eta kultura demokratikoarekiko.

Horretarako, ñabardurak ñabardura, guztiek uste dute beharrezkoa dela oraindik konpontzeke dauden hiru gai nagusiri aurre egitea, Foro Sozial Iraunkorrek 2018ko maiatzetik identifikatu dituen eta jorratzeke dauden erronkekin bat datozenak:

1. Biktimen eskubideak:

Eusko Legebiltzarra osatzen duten 75 legebiltzarkideetatik 68k aitortzen dute beharrezkoa dela Euskal Autonomia Erkidegoko indarkerien testuinguruan gertatu diren indarkeria adierazpen guztien biktimei egia, aitortpen ofiziala, justizia eta erreparaziorako eskubidea bermatzea, gaur egun dagoen diskriminazioa gaindituz.

Horretarako, Gobernu Akordioak hainbat ekimen jasotzen ditu, eta aipagarrienak dira 4/2008 Legea, Terrorismoaren Biktimei Aitortza eta Erreparazioa ematekoa, eta 12/2016 Legea, Estatuak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

Gainera, hauteskunde programen artean berariaz aipatzen dira konpondu gabeko kasuak eta torturaren biktimak. Errealitate horiei mekanismo berritzaile eta irudimentsuen bidez egin beharko zaie aurre hurrengo urteotan.

2. Presoak, iheslariak eta deportatuak:

Aurreko atalean aipatutako Eusko Legebiltzarraren gehiengo bera (%90,6) euskal presoak beren familia inguruneetatik urruntzen eta sakabanatzen dituen salbuespenezko espetxe politika behin betiko indargabetzearen alde dago, horrek larriki gaixo dauden pertsonak espetxean mantentzen baititu eta arau orokor gisa salbuespenezkoak izan beharko luketen praktikak aplikatzen jarraitzen baitu (isolamendua, graduako trantsizio eragozpena), betiere egungo espetxe-legeriarekin bat etorri eta presoek hasitako bidearekin bat etorri.

Gainera, alderdien artean adostasun zabala dago espetheen eskumena transferitzeko eskaeran, Gernikako Estatutuan jasotzen den bezala, eta euskal espetxe sistema bat abian jartzean.

Azken puntu hori Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialistak sinatutako gobernu akordioan ere jasotzen da, bai eta Euskal Autonomia Erkidegora egin gabe dauden transferentziak eguneratzeari buruzko 2017ko txostenean ere.

Bestalde, preso, iheslari eta deportatuen berrintegrazioari dagokionez, adostasun zabalak daude errealitate horri gizarte errealitate berriarekin bat etorri aurre egiteko.

3. Memoria kritiko inklusiboa

Hirugarrenik, aurrez aipatutako gehiengo zabala bat dator memoria eraikitzeke erronkari aurre egitearekin, jarrera kritikoz eta irabazleen eta galtzaileen logikak saihestuz.

Memoria horrek, bizi izan dugun guztia ahaztu edo ekidin gabe, "errelatoen bataila" deritzona gainditzeko baldintzak sortu beharko lituzke, eta giza eskubideen eta bakearen kulturaren oinarritutako etorkizuna eraikitzea ahalbidetu.

Hala ere, egia da puntu honetan egiten duela ñabardura gehien alderdi bakoitzak, besteek ematea beharrezkotzat jotzen dituzten urratsak azpimarratze dituztelarik eta norberaren kontakizunak baliozkotzat jotz.

Hain zuzen ere, horixe izan da aurreko legegintzaldiko Memoriaren eta Bizikidetzaren ponentziak aurre egin behar izan dion gairik zailena, eta bertan korapilatu dira gehien jarrerak.

Horregatik, Foro Sozial Iraunkorrek azpimarra honako ideian nahi du egin: alderdi gehienek partekatzen dituzte erronkak eta helburuak: etorkizuneko bizikidetzaren eraikitzea, eta bizikidetzaren hori ahalbidetuko duten zumeak ehuntzeko beharra.

Testuinguru horretan, berariaz aipatu behar dira legegintzaldi berrian izan dezaketen garrantziagatik nabarmentzen diren bi ekimen: batetik, Gogora Institutuaren 2021-24 Jarduera Plana; eta, bestetik, Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege berria.